

Letrak, korner kantoitik

'Letrak eta futbola' jardunaldien laugarren hitzaldi zikloa hasiko da gaur, Bilbon; dagoeneko klasikoa da

Ideia xelebrea ematen zuen hasieran, baina arrakasta izan du. Letrak eta futbola hitzaldi zikloak, zeinak literatura eta baloia uztartzen dituen, lau urte beteko ditu aurten, eta dagoeneko klasikoa bihurtu da. Gaur abiatuko dute ekitaldia Hernan Casciarik eta Enric Gonzalezek, Bilboko Foru Liburutegian. Athletic Club Fundazioarekin batera antolatzen du zikloa Foru Liburutegiak. Casciari idazle eta kazetari argentinarra Weblog de una mujer gorda gunearekin egin zen ezagun. Ondoren, Mi querido Klikowsky ETB2ko telesailean aritu zen 2005ean, eta Orsai aldizkaria sortu zuen gero. Enric Gonzalez kazetaria da, eta Historias del Calcio liburua argitaratu zuen 2007an. Liburu horretan Italiaren kronika eta deskribapena egiten du, Calcio taldearen bidez.

Datorren ostegunean, otsailak 14, euskaraz arituko dira Edorta Jimenez idazlea, Andoni Egaña bertsolaria eta Lutxo Egia idazlea.

Otsailaren 21ean, Aitor Lagunas Panenka.org guneko sortzailea, Eduard Sancho Contra Ediciones argitaletxekoa eta Emilio Sanchez Mediavilla (Libros del KO) arituko dira mahai inguruan.

Azken saioa otsailaren 28an egingo dute Elena Medelek eta Manuel Vilasek.

'LETRAK ETA FUTBOLA'

Noiz. Gaur, 19:00etan.

Non. Foru Liburutegian, Bilbon. Sarrera doan eta libre.